



Eros

Eric Dicharry

Pamiela Poesia, 49

978-84-9172-177-2

2020. urtea - 144 or. - 15x21 cm

14,50 €

Diotenez, katuek bederatzi bizi badituzte. Mementoko, gizakiok bizi bakarrekoak gara. Hiltzeko programatuak. Sortzez hilkorak. Bakan batzuetan, ustegabeko bigarren bizia eskaintzen zaie, emaitza gisa, gizon-emakumeei. Atearen bestaldetik berriz jin direnak heriotz-bazterretan ibili izan direnak dira. Near Death. Etzanik, argi zuri distirantari so daudela, bizi osoa iragan izan zaie arinki beren baitan. Beren gorputzetik kanpo aterarik, hari begira egon dira. Mingarria izan zaie gorputzaren berreskuratzea, heriotzaren eta biziaren mugetan bidaiatzea. Lehen hilik orain berriz bizirik. Xabi Bordak galdetzen duen moduan: «zenbat bider gehiagotan hil behar al gara guztiz hiltzeko?».

Bizirik den hildakoa gizaki bera ote da? Berbera? Antzekoa? Gaur zein gorputzetan bizi ote da? Lehen-goan? Gero-koan? Nor da hilen erresumatik itzuli den hori? Zertara etorri ote da berriz? Nolakoa ote da orain bizirik eta lehen hilik zen haren begirada? Herio-bidaiatik itzuli denak zer ote dio bere lehengo biziaz? Hitz batez, nor ote da mintzo dena? Nor idazten ari dena? Hastapeneko gizakia hil zen. Zergatik hartu ote du luma ondotik jin den gizakiak? Zertarako idazten ote digu? Lekukotasuna pasarazteko? Intimotasun unibertsala ukitzeko? Zenbat ote dira idazleak? Bat? Bi? Nor da idazten diguna?

Poetaren hitzek tximisten gisan distiratzen gaituzte. Maiz iluna den mundu itsuan, bidea argitzen digute. Azken fi-nean, Dicharryren poesien oihartzun gisa Leire Bilbaoren hitz hauek zaizkigu heltzen gogora: «Zuk zerorrek zeniostan hiltzea baino latzagoa dela ez jakitea zertarako bizi garen».

TIMBERLAKE WERTENBAKER



Eric Dicharry
(Bayonne, 1969)

Antropologian doktorea (EHES, Paris), poeta artista, idazlea eta ikertzailea da.

POESIA

Eux (Publibook, 2002), *Hormatik hormaraino* (Maiatz, 2012), *After Banksy* (Maiatz, 2014), *Errudun* (Maiatz, 2016), *Duchampen inguma* (Pamiela, 2018).

ANTROPOLOGIA

Du rite au rire. Le discours des mascarades au Pays Basque (L'Harmattan, 2012), *Le rire des Basques* (L'Harmattan, 2013), *L'écologie de l'éducation. Un anthropologue à l'école du bertsularisme en Pays basque* (L'Harmattan, 2013), *Théâtre, résidence d'artiste, médiation et territoire* (L'Harmattan, 2014).

ARTEA

The Idea of The Idea of Love (Artium museoa, 2018).

ELEBERRIA

Tout ceci pour cela. Essai d'ekphrasis prospective et d'implémentations (Editions Post Mortem, BNF, 2019).

Enregistrer sous (Editions Post Mortem, BNF, 2019).

Un monde ouvert (Editions Post Mortem, BNF, 2019).

